

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko apirilaren 7a

Egunkaria


Gehigarri honetan



Olatz • Gazteak lokalik gabe gelditu dira, Eguesibarko Udalak Gaztetxea hustu eta gero

Fernando Sesma • «Goi mailako ikasketak beharrezkoak direla erakutsiko dugu»

Lege berri baterantz



• KRISTINA BERTAIN



**Información
Argibideak**



Euskararen legea askoren ahotan dabil egunotan. Oinarriak bilgune euskaltzaleak aldatu egin nahi du, eta horretarako, sinadurak bildu ditu. Sanz lehendakariak ere legea aldatu nahi du, baina ez Oinarrien bidetik, murriztaileago eginez baizik, oraingoak nafar asko baztertzen omen dituelako. PSNk dio legearen gerizpean eginikoa aztertu behar dela. Eta EAK Europako Batzordera eraman du legea, han azter dezaten. EHk, berriz, Euskal Herri osorako hizkuntza politika nahi du. Legealdi honetan Euskararen legearen inguruan borroka latza izanen dela dirudi. E gatazkarik sutsuenek administrazioa eta unibertsitatea hartuko dute eztabaidagai. Baina badira bestelako alorrak ere, irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea eta hedabideak adibidez.



Olatz Txipia •

Gazteak lokalik gabe

Gaztetxearen husteko modua salatu dute babesgabe geratu diren gazteek

Ipar Haizea gazte elkarteak orain arte erabiltzen zuen lokaletik gazteek zeuzkaten gauza guziak atera zituzten iragan martxoaren 23an Eguesibarko Udaleko hainbat langilek, Guardia Zibilaren laguntzaz.



Olazko gazteek gaztetxetzat erabiltzen zuten lokala hustu eta margotu berri du Udalak. ●KRISTINA BERIAIN

IPAR HAIZEKOEK LOKALA husteko modua salatu dute. Udaleko langileak goizeko zortzietan agertu, lokaleko atea bortxatu eta sartu egin ziren. Guardia Zibilaren zortzi bat patrolek zaindu zuten operazioa. Udaleko langileek lokalean zegoen guzia hartu (altzariak, liburuak, jokoak,

bideoa, telebista...) eta kiroldegiko sotoetara eraman zuten. 12:30etan bukatu zuten, lokaleko sarrailak aldatu eta kanpoko burdinesiari katea jarri eta gero. Guardia Zibilak egun osoa eman zuen herrian. Herriko plazan dagoen lo-

kal hori Olazko Kontzejuarena da, eta gazteei utzi zieten euren jarduerak egin zituzten. Erran bezala, Ipar Haizea gazte elkarte da, eta hainbat jai, ikastaro, eta txapelketa antolatatu ditu. Enrique Izu da (Eguesibarko Kandidatura In-

dependentea) Kontzejuko lehendakaria. Ipar Haizekoek erran dute Izurekin otsailaren 25ean izan zuten azken bileran lokalean bestelako jarduerak egiteko akordioa lortu zutela. Antza, Izuren asmoa zen eskulan eta pintura lantegiak lokal horretan sartzea. Baina lantegi horietako arduradunek Ipar Haizeari komentatu ziotenez, ez zuten horren berririk.

Lokalaren hustearen erantzukizuna bailarako alkateak edo Kontzejuko lehendakariak duen ez dago argi. Edonola ere, Iñaki Galipienzok, Eguesibarko alkateak (UPN), adierazi du «izaera politikoa duten elkarteek» erabili dutela lokala. Halaber, adierazi du «terrorismoaren apologia» egiteko eta «droga leunak kontsumitzeko» erabili dutela. Ipar Haizearen aburuz, lokala husteko arrazoiak politikoak dira soilik, eta herriko gazteria kriminalizatu nahi dutela esan dute, eta halaxe adierazi

zuten martxoaren 30eko oso-bilkuran. Gazteen erranean, alkateak ez du egin di-tuen «salaketa larriak laguntzeko batere frogarik». Eta beraien ustez, lokala hustearen ardura Izu Kontzejuko lehendakariak du. «Herriko gazteria babesgabe eta erabat bazterturik geratu da, bidegabe, bilgune bakarra kendu diotenetik», azaldu dute Ipar Haizeko gazteek.

Sustengu bila

Gazteek gogoratu dute lokala Kontzejuak utzi ziela, eta edozer gauza egin izan duten bakoitzean Kontzejuaren baimena eskatu dutela. Era berean, zenbait jardueratarako Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jaso dute. «Azken hauteskundeetatik sortu zen Kontzejuak mespretxuz hartu gaitu, oztopak paratu dizkigu etengabe, eta Enrique Izu Kontzejuko lehendakariak gezurra erran digu, argi eta garbi», adierazi du Ipar Haizeak.

Lokala hustearen kontrako sustengua jasotzearen, gazteek sinadurak bildu zituzten; 150 bat lortu zituzten. Baina ez dirudi gazteak lokalera itzuliko direnik. Gazteek lokala margotu zutenetik ez da urtebete pasatu eta Udaleko langileek berriz ere margotu dute gazteen aztarna guziak ezabatzearen.

→ Asier Azpilikueta

Leitza • Marka hausteagatik saria

Igandeko krosean 29 minutu eta 49 segundo baino lehenago iristen denak saria jasoko du

Aurrera kirol elkarteko zenbait kidek, Irauli Gazte Asanbladakoekin batera, 10 kilometroko ibilbidea prestatu dute iganderako, jendeak izerdi pixka bat bota dezan.

LEITZAKO KIROLARIEK HITZORDU garrantzitsua dute igandean. Goizeko 10:15ean izanen da lehenengo irteera: 9 urteko neska-mutilek 800 metroko zirkuitua egingen dute herrian barrera. Ondoren, 10 eta 15 urte bitarteko txanda izanen da. Horiekin, antolatzaileek egin beharreko lana bikoiztu egin beharko dute. Izan ere, 10-12 urte bitartekoek buelta bat emanen diote zirkuituari, eta 13-15 urte bitartekoek, bi buelta.

Gero, aurtengo proban parte hartuko duten beste guztiei tokia egingen zaie. Izerdi de-

zente atera beharko dute, ongi prestatuta ez badatoz, behintzat. Emakumezkoek bi buelta eman beharko dituzte, eta adinekoek zein 16-18 bitartekoek, hiru buelta. Azkenik, 19-39 urte bitartekoek lau buelta egin beharko dituzte. Azken multzo hori 11:15ean aterako da, eta 10 kilometroko ibilbidea egin beharko du. Haien izenak izanen dira sari nagusiak. Helmugara iristen den lehenak 30.000 pezeta saria eta trofeoa jasoko ditu; bigarrenak, 20.000 pezeta, eta hirugarrenak, 10.000. Emakumezkoen artean, lehenak 15.000 pezeta eta

trofeoa jasoko ditu; bigarrenak, 10.000, eta hirugarrenak, 5.000. Diotenez, egin beharreko lana erdia denez, sariaren erdia ematen zaie. Aurreneko postu horietan sailkatzen ez direnek ere sari bat izanen dute parte hartze soilagatik, Aurrera elkartekoek kamiseta eder bana emanen baitie denei.

Aurtengo krosean bada berrikuntzarik: lasterketako errekorra hausten duen gizonetzkoak saria jasoko du. Hain zuzen ere, 29 minutu eta 49 segundo baino lehen helmugara ailegatzen denak 25.000 pezeta jasoko ditu. Esan be-



Aurrera Taldeak eta Irauli Gazte Asanbladak antolatu dute krosa.

EGUNKARIA

zala, gizonetzkoek bakarrik dute sari hori jasotzeko aukera, eta ez dago oso argi zer gerta daitekeen emakumezkoekin.

Lasterketan galduriko indarrak berritzeko, antolatzaileek herri guztia gonbidatu

dute Torre tabernan egingen den bazkarian parte hartzera. Bazkalostean, herriko tabernetan beste mota bateko kirola egiteko gonbita ere egin diete leitzarrei.

→ Eli Belauntzarán

Lizarra • Abiatu da trenaren museoa

Antzinako trenaren oroitzapen eta aztarnak bilduko dituzte museoan

Lokomotor zaharra, garaiko bagoiak, trenbide zatiak, argazkiak, txilibituak, txanoak, banderatoak, argiontziak eta antzinako bidai txartelak ikusi ahal izanen dira, bertzeak bertze, Lizarrako Trenaren Museoan.



Lizarratik Gasteizera zihoan trenbideko tuneletako bat, Lizarra inguruan. • KRISTINA BERASAIN

1967. URTEKO ABENDUAREN 31n, Lizarratik Gasteiz eta Bergararako bidea egiten zuen trenak azken ibilbidea egin zuen. Gaueko hamarretan ailegatu zen Ega ibaiko hiriko geltokira. Geroztik, denboraren poderioz, trenaren arrastoak galduz joan dira. Trenbidea pixkanaka-pixkanaka ezkutatu zen zuhaixka, harri eta zuhaitz adarren artean. Lokomotor zaharra eta bagoi luzeak ere bertze nonbaitera eraman zituzten. Haatik, antzinako trenaren soinua oraindik entzun daiteke zenbait bazterretan.

Lizarraldeko heldu eta adinduen gogoan argi eta garbi irudikatzen da trenaren itxura; izan ere, oroimenak eta gomutak anitz dira adineko jendea-

rentzat. Halaber, jendearen oroimenean ez ezik, antzinako trenaren lekuko ugari aurki daitezke Lizarraldean ere. Esaterako, Lizarratik Gasteizera zerako herrirako guztietan garai bateko geltokien arrastoak gelditzen dira, eraikin handi eta dotoreak. Era berean, zubiak, tunela eta gaur egun bide berdea den ibilbidea gordetzen dira.

Oroimen eta arrasto guztiak biltzeko asmotan, joan den urtean Trenbidearen Lagunen Elkarte osatu zen Lizarran. Bertako kide Iñaki Susoren hitzetan, elkartaren xedea ber-

tako historiaren zatia izan den trenaren oroimena bizirik gordetzea da. «Lizarratik Gasteizera eta Gasteiztik Bergararako bidea egiten zuen trena 1927. urtean sortu zen», azaldu du. «Trenbidea egiteko lanak 1919. urtean hasi ziren; beraz, zortzi urte behar izan ziren geltokiak, zubiak eta trenbidea egiteko. Gure aitona lan horietan parte hartu zuen», gogoratu du Susok. «Aurreneko trena lurrunekoa izan zen, baina hilabete gutxitan tren elektrikoa ipini zuten. Berrogei urtetan bizirik iraun zuen trenak, eta zergatik desagertu

zen inork ez du argitu», gaineratu du.

Orain trenaren arrastoak berreskuratzeko lanetan ari dira elkarteko kideak. Dagoeneko hainbat herririk erakusketak txikiak egin dituzte, eta pixkanaka material gehiago biltzen ari dira. «Jendeak oraindik baliagarriak diren gauzak gordetzen ditu», azaldu du Susok: «Guk horiek bildu eta museoan gorde nahi ditugu». Udalak geltokiaren biltegia zen eraikin zaharra elkarteari uzteko asmoa agertu du.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak
Eduarne Elizondo


Jesus Zubiria, Mozambiken misiolari

Jesus Zubiria Etxarren-Arakilgo misiolariari telefonoz martxoaren hasieran egindako elkarrizketa jaso du Guaixe hilabetekariak azken zenbakian. Mozambiken bizi izandakoaz mintzo da Zubiria, besteak beste, **Guaixe**-ko kideekin izandako solasaldian: «Laguntza ez zen garaiz iritsi baina iritsi da. Momentu honetan hilabete baterako janaria omen dago. Eguero, batez ere haizez eta helikopteroz, 100 elikagai tona eramaten dituzte elikagai banaketa-guneetara. Momentu honetan 248 banaketa-gune daude,

eta horietan jendea jaten ematen diote. Nazioarteko laguntza berandu iritsi denez milioika pertsonak egun asko pasatu dituzte jan, edan eta lo egin gabe, eta honek ekarri du asko hil egin direla eta beste asko gaixotu direla, batez ere malariatz.

«Gure telefonoak funtzionatzen du gure argindarra Hegoafrikatik datorrelako, Mozambikeko elektrizitate dorre asko apurtuta baitaude. Beraz, laguntza behar dugula argi dago, Mozambikeko gobernuak ahal duena egiten ari da, baina tamalez, oso gutxi egin ahal

du. Hemen oraindik arriskuan dauden pertsonak daude hemen, hiltzeko arriskuan daudenak, gaixotasunak hartzeko arriskua dutenak, janaririk ez dutenak, uholdeek uzta guztiak desegin baitituzte. Momentu honetan pertsona horiek izan behar ditugu gogoan, gu baiko askoz okerrak dauden pertsona horiek. Gizakiak garelako elkartasuna behar dugu, eta kristauak garenok ere sinisdun garen aldetik elkartasuna behar dugu. Bestalde, eskerrik asko Sakanatik deitzeagatik eta agur bero bat guztioi».



Xabier Larraburu

Entzule finari Diskurtso petoa

Gabon. Agur eta Ohore Nafarroako leku guztietatik etorri zareten guztioi. Entzuten da? Bai? (BAIIIIII!!!). Ongi dago. Zezenplaza honetan hiru ordu eman dituzue jada, euria bota du, haizeak altzairuzko pankarta bota du (eta hiru lagun zauritu), eta nekatuta egongo zarete (BARREAK. EZZZZ!)... lasai... ez naiz luze mintzatuko. Hiru Egia Borobil besterik ez dut botako eta hitz gutxiek, gainera (TXALOA), nafarroak daki-gun moduan! (TXALO ZAPARRADA). Galdera bat egingo dizuet. (ISILUNEA) Zer dakigu Nafarroko Partikulen Fisikari buruz? Ia ere ez. Zergatik eskatzen dute, orduan, hementxe, Iruñean, Nafarroako Unibertsitatean!, Fisika Nuklearreko irakaslea izateko jakintza zehatz horren ezagupena? Zer diskriminazio nazkagarri da hori? Zergatik ez naiteke ni izan, nafarra naizen aldetik, edo zu, edo zu, Fisika irakaslea? Beste batzuek jakintza-bilduma hori dutelako? Gutxiengo eskisito bat? Ez gara denak berdinak eskubideetan, ez al dira gauzak gehiengoaren errespetuan egin behar? (TXALOA). Portugaldarrekin lan egiteko gizarte langile bat eskatzen dute... eta hara!, azterketan Portugesez jakitea eskatzen dute! De-ri-go-rrez!!! Noiztik hitz egin duguk, nafarroak!, portugesez? Ez al gaude, bada, gehiengo zabalak, diskriminaturik lanpostu horretan? (TXALOA, TXISTUAK). Zuetako askok seme-alabak izango dituzue, agian lanpostu baten bila ari direnak. Nafarroako Administrazioak eskaintzen dituen lanpostuetarako azterketa horietaz zeezer entzuna izango duzue, ezta? Ezta? (BAIIIIII!!!). Banangoen, ba, ni. Eta nola senti daiteke Amatxo ezti bat, bere alabatxo etxera etorri eta, negar-zotinka, bere begi ederrak desitxuraturik, esaten dionean: «Irakaslea izateko Partikulen Fisika eskatzen zuten! (TXISTUAK), gizarte langilea izateko Portugesez jakitea eskatzen zuten! (TXISTUAK). Ikastolako sukaldaria izateko Elvasco, pedian Elvasco!! (TXISTUAK, OIHUA!)». Amatxok... zer pentsatuko du? Denok pentsatzen dugun gauza bera: gehiengoaren diskriminazioa dagoela, alegia! (TXALOA). Nafar guztiok ez ditugula aukera berdinak! Eta kito! Orain... gauza bat esango dizuet, eta banoa..., egoera honi laster buelta emango diegu!! (TXALO ZAPARRADA!). •

Legea aztertze bost arlo

Irakaskuntza


1986ko Euskararen legea

Eredu ez-euskaldunaren euskararen irakaskuntzak Administrazioaren sustengua jasoko du eta, behar izanez gero, bere finantzaketan lagunduko du, eskaerari jarraikiz.

Argiñe Korta ▶ Tuterako ARGIA IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Nafarroan zortzi dira eremu ez-euskaldunaren dauden ikastolak: Irunberrikoa, Zangozako, Tafallakoa, Vianakoa, Lodosakoa, Sartagudakoa, Tuterakoa eta Corteskoa. Denetara bostehun bat haur. «Gure egoera alegala da», azaldu du Kortak. «Legez ez gara existitzen. Administrazioarekin harremanik ez dugun arren gure funtzionamendua normala da guziz. Baina Hezkuntza Departamentuko zereñdetan agertzen ez garenez, arazoak izaten ditugu hainbat material lortzeko edota irakasleentzako ikastaro batzuk egiteko».

Baina, Kortak esplikatu duenez, haur batek ikasketak Tuterako ikastolan bukatzen dituenean, ofizialki ere bukatu ditu. Beste ikastola batean du izena emanda, baina eskolatzeko liburu eta agiri guziaz lortzen ditu. Zehazki, Tuterako haurrek Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolan dute izena emana. «Hala-



• NEKANE OTERMIN

Helduen euskalduntze-alfabetatzea

1986ko Euskararen legea

Ez du helduen euskalduntze-alfabetatzea aipatzen.

Iñaki Lasa ▶ NAFARROAKO AEK-KO KOORDINATZAILEA

Nafarroako euskalduntze-alfabetatzea lantzen duten erakundeetan lau bat mila lagun matrikulatzen dira urtero. Lasaren iritziz, «euskararen normalizazioa lortu nahi duen lege batek, ezinbestean, arautu egin behar du helduen euskalduntze eta alfabetatze prozesua».

«Dekretu batean arautu zituzten euskalduntze-alfabetatzearen diru-laguntzak», dio Lasak. «Baina sektorearen garapena ez du jasotzen. Dekretu horretatik sortzen diren

arazoak hiru dira: planteatzen dituen ratio-ak sobera altuak dira talde txikiak antolatzea lortzen duten eskualdeetarako; diru-laguntzak eskasak dira; eta liburu eta bestelako materialen argitalpenetan, irakasleen prestakuntzan eta beste arloetan ez dago inolako plangintzarik ezta laguntzarik ere».

Legean arauturik ez dagoenez, euskalduntze-alfabetatzea Nafarroan marjinalitatearen kondena naturala da, dio Lasak. «Boterea duen politikariek ez dute ikusten ele-

mentu inportante bezala euskararen normalizazioan, edo bestela euskararen normalizazio bera ere ez dute nahi, eta ikusten dute euskalduntze-alfabetatzeari laguntzea izan litekeela euren buruen kontra egitea».

Euskalduntze-alfabetatzerako diru-laguntza azken hiru urteetan izoztuta egon da, eta, Lasak dioenez, «erakundeek problema serioak dituzte diru-laguntza horiekin bere lana behar den bezala egiteko».

1986ko Euskararen legeak eragin zituen hutsuneak betetzeko garaia dela uste du Oinarriak bilguneak

Ezberdintasun anitz dagoan aldarrikatu zuten Euskararen legearen eta Oinarriak plataformak proposatzen duen legearen artean, baina horietako bat funtsezkoa da: Euskararen legeak hiru hizkuntz eremutan banatu zuen Nafarroa, eta horien arabera dira herritarren hizkuntz eskubideak. Aldiz, Oinarriak erakundearen lege proposamenak biltzen du euskara Nafarroa Garaiko osoan ofiziala izanen dela. Izan ere, ofizialtasun osoak soilik egingen ditu bideragarri euskaraz bizi nahi duten askoren egitasmoak.

Testuak: → Asier Azpilikueta

Administrazioa

1986ko Euskararen legea

Eredu euskaldunaren herritar guzietan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea Administrazioarekin dituzten harremanetan, eta aukeratzen duten hizkuntza ofizialean erabiltzeko zaie.

1986ko Euskararen legea

«Euskara, Nafarroa Garaiko hizkuntza ofiziala izanik, edozein herritarrek du eskubidea euskaraz erlazioatzeko eta ataratzeko Nafarroa Garaiko botere publikoaren eta administrazio dibisioen zerbitzuarekin (Estatu, Foru eta Toki administrazioak)».

Patri Arburua ▶ BORTZIRIETAKO EUSKAL TEKNIKARIA

Administrazioak baditu milaka aurpegi bakoitako bat osasun arloa da. Eredu euskaldunaren urteetako borroka izan da mediku euskaraz lortzeko. 1994ko dekretu batek finkatu zuen eremu euskalduneko eskualde bakoitzeko zentroetan zenbat mediku euskaldunak behar ziren. «Baina ez zuen zehazten zeintzuk behar zuten euskaldunak, zein herritarren geldituko ziren mediku euskaldunak gabe», adierazi Arburuak. «Iaz argitaratu zuten Osasunbideko plantilla organikoak, eta hor garbi agertzen zuten lanpostu izanen den euskalduna eta zein ez. Horrek, zenbait kasutan, mesede egin du adibidez, Igantzin eta Arantzan, herririk euskaldunenetan, medikua eta erizaina izanen diren euskaldunak. Orain ere egin dira oposizioak, eta ziurtaturik dugu lanpostu horiek eskuratuko diren euskaldunak izanen direla. Baina kalte ere egin digu. Psioiterapeuta euskalduna gero orain arte, baina orain ez da euskara eskatzen lanpostu horretarako. Igual, txiripaz, etorritako euskaldun bat, baina igual ez». «Berako medikuak zergatik izan behar dituzte?», eskubide gutiago dituzte beratarrek?, galdetu du Arburuak. «Hemen behar dugun profesional guziaz elebidunak izatea. Euskararen Legeak aitortzen digu hemengo herritarrek laguna eskubidea zerbitzu publikoak euskaraz hartzeko, eta modu horretan ez da betetzen hori».

Unibertsitatea

1986ko Euskararen legea

Ez du unibertsitatea aipatzen, baina zera dio: «Ikasketan plan ofizialek euskara Nafarroko kultur ondareztat hartuko dute, eta foru lege honen helburuetara moldatuko dira».

Gorka Ovejero ▶ NUPEKO IKASLE EUSKALDUNEN ASANBLAETAKO KIDEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskara hala edo nola sartzeko makina bat borrokatzen izana da Ovejero. Euskararen Legeak unibertsitatea aipatu ez izanak hutsune legal handia sortu zuela uste du, eta legea ambigua den aldetik, alde batera edo bestera jo daitekeela. «Unibertsitatearen estatutuak egin zirenean, jarri zuten euskaraz ikasteko eskubidea egonen zela», azaldu du. «Baina UPNko gobernuak eskua sartu zuen hori ez zela unibertsitatearen eskumena argudiatuz».

1986ko Euskararen legea

Ikasketan aukerak ez ditu hizkuntzak baldintzatuko, hau da, ez da hizkuntzen arabera bereizketarik egonen eta ikasleek unibertsitateak eskaintzen dituen karrerak euskaraz egin ahalko dituzte.

Euskararen Legean ez zuten aipatu, eta gero unibertsitatea saiatu zenean ez zioten utzi».

Obejeroren hitzetan, «unibertsitateko estatutuak diote administrazioan euskara erabiltzeko eskubidea dagoela, eta, irakaskuntzari dagokionez, batzorde batek erabakiko duela nola egin. Sei urte darrazaz plangintzak egingen. Irakasgaiak gorabehera, gakoa euskaraz ikasteko eskubidea onartzea da».

Foru Hobekuntzak, Obejeroren ustez, erran behar luke euskara ere Nafarroako hizkuntza ofiziala dela, eta «gero unibertsitateak, bere autonomian, berea garatu beharko luke».

Hedabideak

1986ko Euskararen legea

Gizarte hedabide publiko zein pribatuaren euskaraz behar duen presentzia progresiboa bultzatuko du Administrazioak. Horretarako diru eta material laguntzen planak egingen ditu.

Oinarriak-en proposamena

«Nafarroako Gobernuak egunkari, irriti, telebista eta bestelako bideak erabiltzen dituzten komunikabideetan euskara erabiltzen dela ziurtatuko du».

Mikel Bujanda ▶ EUSKALERRIA IRRATIKO ZUZENDARIA

Iruñeko Euskalerria Irratiari 1991 eta 1998ko lizentzia banaketan ukatu egin zitzaion irriti legala izateko baime-na. Bujanda zuzendariaren aburuz, «Euskararen legeak hedabideen inguruan dioena oso generikoa da, zehazgabea, eta hori izan du desideratum bat, nafar agintarien nahi edo gogoen arabera izanen dena». Euskalerria Irratiko zuzendariak uste du irratien lizentzia banatzeko orduan legeak aholkatzen duena, nahiz eta ez agindu, kontuan

hartu beharko litzatekeela irizpide beza-la.

«Nafarroan ez dago ez irriti ez telebista publikorik», esplikatu du Bujandak. «Hedabide handietan euskararen presentzia gutiagora joan da. Lehen irratietan izaten ziren saiok desagertu egin dira erabat. Gogoan dut guri lizentzia lehen-dabizikoz ukatu zigitenean agindu zutela Radio Nacionalek hainbat saiok egingen zituela euskaraz, baina ezerezean geratu da hori. Aldiz, egia da garatu direla euskara hutsezko hedabideak. Eta hauek, handi edo txiki, badute diru-laguntza Nafarroako Gobernutik. Baina diru-laguntza emate huts bat izan da, ez da inolako politika zehatzik egin. Emaitza, beraz, motz eta eskas gelditu da».



• EGUNKARIA

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Hermes aldizkariaren euskal lanak

Egunotan ikusgai dago *Hermes* aldizkariaren inguruko erakusketa Bilbon. NAFARKARIA irakurtzen dugunontzako seguraski nahikoa urruti geratu zaigun ekintza kulturala izan da, baina, hala izanagatik ere, interesekoa dukegu, bai bertan idatzi zuten nafarren berriri bagagozkie, bai euskarazko ekarpenari berari begiratzen badiogu.



Jesus Sarriak sortu eta zuzenduriko ekimen honetan Hego Euskal Herriko idazle aldra ederrak parte hartu zuten, alde batetik zein bestetik. Karmelo Etxegarairen aburuz, *Hermes* izan zen ordura arteko aldizkaririk ederrena eta arras esanguratsua dateke Santi Onaindiaren testigantza, zeinek Juan Ramon Jiménez Nobel saridunaren etxera eginiko bisitaldian, *Hermes* aldizkariaren bilduma osoa ikusi ahal izan baitzuen Moguerko poetaren liburutegian. Aldizkariaren lehenbiziko zenbakia 1917ko urtarrilean kaleratu zen, eta azkena suertatu zen 85. zenbakia 1922ko uztailean. Aldizkariaren ezaugarriarik nabarmenena, zalantzarik gabe, erakusten zuten aniztasuna genuke, sortzailearen hitzetan, "tribuna de convivencia respetuosa y cordial para la afirmación y defensa de nuestros valores, tradiciones e intereses", eta zentzu zabalagoan, "ensayo para probar el estado actual de la civilización del país, un compás con el que intentamos medir el grado en que los vascos sienten hoy su conciencia solidaria, la dignidad y el valor de sí mismos". Aniztasun honen froga ezin argigarriagoa aldizkariaren orriotan hainbat pertsonalitate eginiko omenaldiak ditugu: Ignazio Zuloagari, Dario de Regoyosi, Adolfo Guiardi, Antonio Truebari, Jesus Guridiri, edota Sabino Aranari, baita bertan idatzi zutenen izendegi zabala ere: Odon Apraiz, Telesforo Arantzadi, Ignacio Areilza, Imanol Aznar, Ricardo Baeza, Pio Baroja, Ramon Belaustegigoitia, Arturo Campión, Fermín Dolagaray, George Douglas, Luis Eleizalde, Alfredo Etxabe, Eduardo Landeta, Adolfo Larrañaga, Salvador Madariaga, Ramiro Maeztu, Pedro Mourlane, Eugenio D'Ors, José Ortega, Ezra Pound,

Manu eta Alejandro de la Sota, Arthur Simons, Rabrindanath Tagore -Juan Ramón Jiménez- beraren emazteak, Zenobia Campubrik alegia, eginiko itzulpenetan hain zuzen-, Francisco Ulacia, Miguel Unamuno, Joaquín Zuazagoitia... Hau dela eta, *Hermes* aldizkariaren ospea Euskal Herriatik kanpo zabaldu zen, eta lehenago aipatu Juan Ramón Jiménezekin batera, bestelako kultur gizonen harpidetzak ere izan ziren esanguratsu asko, esaterako Blasco Ibáñezena.

Jesus Sarria 1887an jaio zen Kuban, abokatu lanbidez, abertzaletasun heterodoxoaren aldeko jarrera hartu zuen alderdiaren lehenbiziko krisialdian, Belaustegigoitia eta Isusirekin batera, alabaina, bizitza politikoaren presioak eta *Hermes* aldizkariaren proiektuak zeharo txiroturik, bere buruaz beste egin zuen 1922ko uztailearen 27an Bilboko Correo karrakako bere etxeko balkoitik botaz.

Egia esan, gutxi izan zen *Hermes*en euskaraz afera zena, eta agertu zenaren ia gehiena olerki laburrak izan ziren, edozein modutan ere, bihoaz hemen euskararen agerpena Sarriaren argitalpenean ziurtatu zutenen berri. Gehien idatzi zuena Luis González Etxebarria izan zen, betiere *Aizkibel'dar Bingen* ezizenaren azpian, osotara 25 olerki, hitz-lauko hiru testu eta *Jai Alai* izeneko *antzerki barri baten zatia* dena argitara eman zituelarik. Idazle hau Ubidean sortu zen 1893an, gazte-gazterik EAJkidea izanik, tai gabe idatzi zuen *Euzkadi*, *Aberri* eta *Kendu* argital-



pen jeltzaleetan; Primo de Riveraren diktaturapen Argentinara egin zuen eta handik bestelako argitalpenetara igorri zituen bere kolaborazioak, besteak beste, *La Baskonia*, *La Nación*, *Nación Vasca*, *Euskalduna*, *Mundial*, *Euzko Deya*, *Egan*, *Vida Vasca*... Honen ostean Joseba Arregi Garaigordobilen lana aipatu behar

dugu; honek Heineren 17 olerki itzulikatu zituen, halaber berak sortu beste lau olerki eta "Euzko eresertiatzat" izenburuko saioa. Arregi La Arboledan jaio zen, 1893an ere, nahiz Irunen luzaroan bizi, eta hortik zenbaitetan erabili zuen *Txingudi* ezizena eta *El Bidasoa* aldizkarian eginiko kolaborazio ugari. *Hermes*en agerturiko Heineren itzulpenak 1927an Bilbon argitaratu zen Heineren olerkiak liburuan bildu ziren. Gonzálezekin eta Arregirekin batera Klaudio Sagartzazu *Satarka* izan zen *Hermes*en orriotan irakurgai dauden beste 18 olerkiren egilea. Zertxobait ezagunagoa, *Satarka* Hondarribian jaio zen 1895; egile naroa, *Txinpartak* eta *Intza begietan* liburuak eman zituen argitara 1922an eta 1957an hurrenez hurren.

Bukatzeko, *Txori Txiki* ezizenaren azpian bere grazia izkututzen zuen Juan Ezenaarro Mendiaren sei olerki, Kiriñoren bi kolaborazio, Joseba Altuna Aldasorok Truebaren bizitzari buruzko tajutu lan luzanga, Sabino Aranaren beraren olerki bat eta Migel Arrutzaren olerki bakarra dira *Hermes* aldizkarian agertzen diren gainontzeko euskal lan guztiak.

Patziku Perurena



Urre horiaz eta motz urdinaz

Fernando Mendizabalek, Kanten *Prolegomenoak* euskaratzean honela dio: «Urrea metal horia da. Hori jakiteko, nire urre kontzeptuaz aparte, ez daukat nik bestelako esperientzia beharrik, ba urre kontzeptuaren barruan sartzen da gorputz hori horia izatea eta metala izatea». (47. orri.)

Julen Kalzadak, Erasmoren *Eromenaren Laudorioa* euskaratzean halatsu egiten du: «Zergatik dago beti loretan urrezko Venusen edertasuna? Ez dago dudarik, neure senidea delako eta horrexegatik neure aitaren kolore horia gordetzen duelako bere aurpegian. Homerok ere horrexegatik deitzen dio urrezko Afrodita». Eta 63. oharrean argitzen du pasartearen zentzu metaforikoa: «Urrearen kolorearen aipamena, Pluto aberastasunaren jainkoa delako».

Zintzoak izanen dira itzulpen horiek agian, baina, euskal nabardura zipittik ere gabe, zozoro eginak. Noiztik ez ote dabilta Euskal Herri osoan, tanke-ra honetako eskekatantak?:

Errekaldean lizarra
Hari begira izarra.

Etxe ontako nagusi jaunak
Urre gorritzko bizarra.

Urrea orohar gorri izan baita gure usuarioan. Usariorik erro-tuenak ere, izaten ditu bere salbuespenak, jakina. Ez naiz, ordea, pedantekeriaren luzatuko.

Erdarazko *amarillo* omen dator: «del latin *amarus*: *amargo*, el latin vulgar formó *amarellus* relacionando la palabra que designa este sabor con el color que toma la piel cuando se desmanda la bilis». Gauza asko ekarri dizkit gogora pasarte horrek. Lehenbizikoa: *amarus* horrexetatik sortua izan liteke la gure *laru* delakoa, gaztelera-ko *amarillo* bezalaxe, eta bien sorburuko zentzuari begiratu. OEH.ak ematen duen etimologiak (del lat. *clarus*) baino askoz aproposagoa dirudi gainera. Izan ere, *laru* hitzak, eus-

karaz ere, sorrerako *amarus* horren eremu semantiko bertsua gorde baitu; oroit bestenaz, bilis horiska horren inguruko *laruen*, *larumin*, *minhori* eta gisakoak.

Beste burutapen mordoa erdal *amargo* horrek ekarri dit, izanez ere, baliatu duen apurra, semantika berdintsuz baliatu baitu euskarak ere (*margo*) *margul* hitzen inguruan. Ikus R. M. Azkuek hitz gainean dioskuna. Ez ote zaigu, gauza onerako, gehixko luzatu xuriketa semantikoa? Margoak: *kolorea* ez baino, *kolore gabea* esan nahiko ote zuten bainago sorreran, inoiz euskal sorrera naturalik izan badu behintzat. Hitz bitan esateko: *amarus*, *laru*, *margul*, *margo*, *amargo* hitzak, elkarren orpoz orpokoak direla, alegia, nere irudituan.

MUTXURDIN: «de motz 'cunus' y urdin 'cano'» dio OEH.ak. Bai ote? Natural samar erabilia eta aditua naiz mutikotan Goizuetan: «urde motzaundia; desluidoan, baina, motzean jo dik bete betean; motza kasik bistan duela etzaiguk ba atera!» eta gisakoak, baina, hala eta guzi, nere senak dio, gordinegia dela etimologia hori, egia izateko. Ez, ez nau betetzen etimologia motz horrek, eta hitzak aurreneko erdia *motz* batetik hartua balu ere, ez juxtu nesken hankartekotik, beste azezpizio peioratibo ugarietakoren batetik baizik.

Gainera, txeismoa inork uste baino ugariago eman da euskarari, eta nago «*musu + urdin*», ez ote litzaken etimologia aproposagoa. Musugorria, edo zurigorria, izan da euskal usuarioan gazte ederra, segaila, sasoikoa; eta alderantziz: musurdina (edo txeismoa tarteko: mutxurdina) sasoia joandakoa, zakartua, musuzimurtua, zahartu-xea, alegia. Azken azezpizio honetaz, OEH.ak jasotzen dituenaz gainera, Goizuetako *Muxurdin Borda* (testu zaharretan *Mussurdin*) antroponimoa datorkit burura.

Ziria

Motxorrosolo

Jardun

GALTZAK BETE LAN BALIZKO ARARTEKOARENDAKO. NEKEZ uxatuko dugu hizkuntzarena hedabideen lerroburuetatik, zoritxarrez ez da sormena leku gehien atxikitzen duena. Oh! denez, gure esku dago legediaren gabeziak azalartzea, oinarriak eguneroko jardunean txertatuz, eta azken honetaz meheki bezain herren.

Fernando Sesma

PABLO SARASATE KONTSERBATORIOKO ZUZENDARIA

«Gure lana goi mailako ikasketei eustea merezi duela erakustea da»

Pablo Sarasate Kontserbatorioko goi mailako ikasketen erreformak zentro horretako eta Nafarroako Gobernuko arduradunen arteko eztabaida sortu du. Gobernuaren arabera, LOGSEk agintzen duen erreforma hori garestiegia da, eta Kontserbatorioko kideak beldur dira aitzakia horrekin ikasketa horiek bertan behera utziko ote dituzten.



KRISTINA BERTAIN

SARASATE KONTSERBATORIOKO zuzendari Fernando Sesma ez du zalantzarik, eta goi mailako ikasketei eutsi beharra azpimarratu du. Berriki Hezkuntza eta Kultura kontseilari Jesus Lagunarekin bilera egin dute Kontserbatorioko kideek, adostasuna lortzen saiatzeko.

■ Jesus Laguna kontseilariarekin egindako azken bileraren ondoren, zein da orain egoera?

Larunbatean manifestazioa egin aurretik egin genuen bilera, eta, solasaldi horretan, goi mailaren bideragarritasunari buruzko txostena egiteko eskatu zigun Jesus Laguna Kultura eta Hezkuntza kontseilariak. Kontseilaria konturatu da ezberdina dela Hezkuntza Departamentuko kideen ahotik eta gure aldetik heltzen zaion informazioa, eta horregatik eskatu digu txostena,

denik. Goi mailako ikasketen erreforma aurrera eramateko gastatu beharreko dirua, guretzat, inbertsioa da, batez ere. Halaber, ez dugu uste oraingo ikasketa planaren eta LOGSEren arabeko planaren artean hainbesteko aldea egonen denik, aurrekontuari dagokionez. Ez dugu ahaztu behar egun Sarasate Kontserbatorioak eskaintzen duen goi maila unibertsitateko lizentziatura baten parekoa dela. Merezi du ikasketa horiei eusteko erreformari aurre egitea.

■ Noiz aurkeztu behar duzue txosten hori?

Ez dugu eperik zehaztu. Bukatzen dugunean bilera egingen dugu berriro Laguna kontseilariarekin. Negoziatzeko borondate ona duela uste dugu. Ziurtatu digu gure txostena aztertu arte ez duela erabakirik hartuko. Halaber,

dela. Hasieran, erabaki hori 2003. urtea arte atzeratu egingen zela erran zuen Hezkuntza zuzendari nagusiak, Santiago Arellanok, nonbait, Espainiako Hezkuntza Ministerioak ere ordu arte atzeratu nahi zuelako goi mailaren erreforma. Orain, argi dago erabaki hori 2001-2002ko ikasturtea hasi baino lehen hartuko dela, ikasturte horretan jarri beharko baita martxan erreforma. Bestetik, Nafarroako Gobernuak gure iritzia aintzat hartzea lortu dugu. Goi mailari eustea merezi duela erakutsiko diegula ziur naiz.

■ Egoitzaren arazoa aipatu izan du Nafarroako Gobernuak; LOGSEren arabera, lehen eta erdiko mailentzat eraikin bat behar dela diote eta goi mailarentzat beste bat. Zuek, ordea, beste iritzi bat duzue.

Gure ustez, LOGSEk bi zentro izan behar direla dio, baina bi zentro horiek eraikin berean egon daitezke. Argi dagoena da Kontserbatorioak beste egoitza bat behar duela, oraingoan jada ez dagoelako behar adina lekurik. Gure ustez, hori da orain gure benetako arazoa, eta hori konponetzen saiatzen aritu behar genuen; ez, ordea, goi mailak jarraituko duen edo ez eztabaidatzen. Finean, kontraesana da auditoriuma egiteko

soslaia

Pablo Sarasate Kontserbatorioko zuzendari ez ezik, klarinete irakasle ere bada Fernando Sesma. Zuzendaritzara 1994. urtean ailegatu zen, eta, aurretik, 1992tik 1994ra, zentroko idazkari izan zen.

Kontserbatorioko ardurak denbora gehiegi kentzen dio Sesmari, eta, hori dela eta, Pablo Sarasate Orkestran zuen tokia utzi behar izan zuen 1994. urtean. Orkestrako klarinete bakarlaria zen musikaria. Eszedentzian dago orain.

Musikari ez ezik, mediku ere bada Pablo Sarasate Kontserbatorioko zuzendari. Orain, Laguna kontseilariari goi mailako ikasketen bideragarritasunaren inguruko txostena prestatzea da haren zeregin nagusia.

ehunka milioi gastatu eta orkestra profesionala duen hiri batean goi mailako ikasketak bertan behera uzteko aukera aztertzen aritzea. Goi mailako ikasketak bertan behera uztea unibertsitateko lizentziatura bat bertan behera uztea bezala litzateke.

■ Eroritako Monumentua aipatu da egoitza berria hartzeko; zer iritzi duzue zuek horren inguruan?

Guk gure beharrak aseko dituen eraikina nahi dugu. Eroritako Monumentua eraikin egokia bada, aurrera, baina guk ez dugu uste aukerarik onena denik. Eraikin berri bat egitea da onena, gure ustez.

■ Azken asteotan jendaurrean eta alderdi politikoen aurrean azaldu duzue zuen arazoa, agerraldi eta idatzien bidez, eta manifestazioa ere egin duzue. Espere zenuten sostengua jaso duzue?

Kontent gaude gure arazoak oihartzun zabala izan duela, eta uste dugulako jendeak gure egoera zein den ulertu duela, konturatu dela goi mailako ikasketei eustea garrantzitsua dela. Gizartea sentibilizatzeke egin ditugu mobilizazioak. Orain, zain gelditzea besterik ezin dugu egin.

■ Afera honetan ikasleek dute gehiago jokoan, goi mailako ikasketak bertan behera geldituz gero Nafarroatik at joan beharko luketelako. Nola bizi dute egoera?

Egia erran, musikaren mundua nahiko indibidualista da eta zaila da denak batzea. Hala ere, oso kezkatuta daude. Orain garrantzitsua da goi mailako ikasketak behar ditugula erakustea.

→ Edurne Elizondo

datu guztiak alderatu ahal izateko. Txosten horretan goi mailaren bideragarritasunari buruzko gure irizpideak azalduko dizkiogu.

■ Eta zeintzuk dira irizpide horiek?

Goi maila zalantzan jartzeko arrazoia ekonomikoa izan da. Guk ez dugu uste bakarrik gastuei buruz hitz egin behar

Parlamentuko Hezkuntza Batzordean gure afera azaltzeko eskaera egin dugu, eta Lagunak erran du batzorde horretan agertuko dela arazo horretaz hitz egiteko.

■ Baikor zarete?

Benoa, dagoeneko bi gauza lortu ditugula uste dut. Bate-tik, badakigu goi mailari buruzko erabakia laster hartuko

«Kontent gaude gure arazoak oihartzun zabala izan duela, eta uste dugulako jendeak gure egoera zein den ulertu duela, hau da, konturatu dela goi mailako ikasketei eustea garrantzitsua dela»



Nafar Kronika

Aitor Arozena

Moda desfileak moda-modan

Beti fribolo xamarrak iruditu zaizkit moda desfileak. Emakume eta gizaseme lirain eta lerdinak harat-honatan disenatzaile famatuena jantzi garestiak erakusten (estaltzen dutenagatik batzuetan jantzia deitza sobera baldin bada ere), argazkilarien flash eta modelok bezain gorputz lirain eta lerdinak ez dituztenen (hau da, populazioaren %99.9) admirazio begiradapean. Berrikiago, anorexiaren gaia zela eta, friboloak ez ezik arriskutsuak ere iruditu zaizkit. Hezurra eta azala bertzerik ez ziren emakumeek estilo bat sortu zuten, zoritxarrez, neska gaztetxo aunitzek segitu nahi izan dutena. Elegantiaren aitzakian, osasuna hondatzeko duen indarra erakutsi du modak. Paris, Milan, Madril eta honelako hiriburuak kokatu ditugu moda desfile ederrenak, baina azken aldia. Nafarroan ere izan da zer ikusirik, moda desfile foralak alajaina! Cibelesko pasarela ekarri zuten eta bazirudien Iruña Espainiako hiriburua bihurtu zela. Hemengo glamourra (behingoa, erdarako hitza egokiagoa iruditzen zait euskarazko txotxi famatuaren orde), hemengo famatu pila...

Baina moda desfileen kontua ez da Nafarroako hiriburuaren soilik gelditu. Nafarroako mendialdera ere ailegatu dira moda desfileak. Bi asteren buruan, hiru moda desfile egingo dira: Bortzirietako Moda desfilea Arantzán, apirilako feria Almandozen eta Bidasoa 2000 Ezkongaien Feria Etxalarko Bentan. Claudia Schiffer, Naomi Campbell eta bertze top modelen faltan, bertako modelok betetzen dute haien lana, eta ederki bete gainera. Gainera, hemen ez da anorexia eta arropa garestiaren arriskurik. Ileapaindegi, arropadenda, jatetxe eta bertze komertzioek beraien eskaintzaren berri ematen dute eta jendez gainezka izaten dira ekitaldi hauek. Erosi, ez dakit zenbat erosiko den, baina bizilaguna kantzontziloetan ikusi eta okindegiko saltzailea kulero eta bularraketan ikusteak jendea eramaten du honelako ekitaldietara. Morboa beti morboa baita, Milanen nahiz Baztanen.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Barañain:** Gazte Orkestren Zikloaren barnean, gaur Hernaniko musika eskola, banda, abesbatza, akordeoi-lariak eta txistulariak izanen dira 20:30etan, Andra Mari elizan.
- **Erronkari:** Kebenko euskara taldeak antolatuta, Numidia taldeak kontzertua eskainiko du bihar, kiroldegian, 22:00etan.
- **Lizarra:** Doctor Deseo Gazte-txean izanen da bihar, 23:00etan.

HITZALDIAK

- **Iruztun:** Sebastiao Salgado-ren *Terra* argazki erakusketaren kariatara, *El conflicto de la tierra en Brasil* izenburuko hitzaldia emanen dute gaur, bideoaren laguntzaz, 20:00etan, kultur etxean.
- **Iruña:** Astelehenean, Nekane Arratibel EHUko irakasleak *Helduen euskalduntzean eragiten duten motibazioak* izanen ditu hizketagai Erraldioen Txokoan, 20:00etan.
- **Berriozar:** Hizkuntza bat ikasterakoan haurrengan eragiten duten gizarte sektoreak aztertuko ditu hitzaldi batean Rosa Ramos euskara teknikariak asteartean, Mendialde ikastetxean, 17:00etan.
- **Atarrabia:** *Nafarroa eta Atarrabiako leku izenak* hartuko dituzte mintzagai Mikel Belaskok eta Peio Monteak, ostegunean, 19:30etan, kultur etxean.

ANTZERKIA

- **Berriozar:** Bihar, Hika taldeak *Arrautza delikatuak* lana antzetzuko du Mendialde ikastetxean, 20:00etan.

BERTSOLARIAK

- **Atarrabia:** Igandean, 16:30etan, Nafarroako Txapelketako hirugarren finalerdian lehiatuko dira Xabier Silveira, Xabier Legarreta, Joxema Leitza, Sustrai Kolina, Ekin-tza Landa eta Nerea Bruño.

ERAKUSKETAK

- **Zangoza:** Aurora Suarez-en *Invisibles* argazki lanak ikusgai daude kultur etxean, asteazkena arte.
- **Tafalla:** Juan Mari Sagarzazu-

ren margolanak izanen dira erakusketa aretoan, asteazkena arte.

- **Berriozar:** *Euskara eta kultura Nafarroan* ikus daiteke kultur etxean, hilaren 10etik 16ra, 18:00etatik 20:00etara.
- **Zizur Nagusia:** Natxo Zenborainen erakusketa dago ikusgai kultur etxean, hilaren 16 arte. Lanegunetan 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

IKASTAROAK

- **Eguesibar:** Gaur da sendabela-

rren ikastaro praktikoan izena emateko azken eguna. Informazio gehiago, Eguesibarko udaletxean.

BESTELAKOAK

- **Tutera:** Orreaga bilguneak mus txapelketa antolatu du Nafarroako kultur elkar-teen artean. Parte hartu nahi duten elkarteek 948-222246 telefonora deitu beharko dute, hilaren 14a baino lehen. Finala Tuteran izanen da, maiatzaren 28an.



Pokemon LA ttikian

«Pablo Sarasate Kontserbatorioko ikasketak goi mailakoak izatea nahi dutela... Eta? Aitaren lanean erabiltzen dituzten paperak oso aspergarriak dira. Nire ondoko bi haurrek interesa dutela dirudi. Horrelakoak mila ditut etxean. Aita sutan jartzen da marrazten dizkiodanean. Horregatik erosi zidan amak Pokémon tebeoa. Eta bi hauek ez diet nire tebeoa utziko. Ez horixe. Eta azpiko danborra? Ooo! Bai handia. Erosiko ahal dit aitak. Bera bezala musikaria izan nahi dudala erranen diot. Sutan jarriko da, berriz ere. Eta amak zerbait erosi beharko dit: Pokémon tebeoa edo danborra».